



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 9a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/MOC-00058. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzea Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (2. or.).
- 11-23/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun plan berri bat igor dezan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (2. or.).
- 11-23/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan ambulanziazko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Gemma Sánches Lerma izendatzen baita erakundearen idazkari nagusiaren aldi baterako ordezkari (4. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

- 11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia. Txostena bukatzeke epea luzatzea (5. or.).
- 11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia. Seigarren araua aldatzea (5. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00058. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Lurralde Kohesiorako Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez du bete Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 21ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako

Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin”.

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun plan berri bat igor dezan

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Osasun Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ez du bete Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren

bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun plan berri bat igor dezan Parlamentuan eztabaidatu eta onets dadin, Foru Komunitatean indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera”.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziako osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Osasun Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez du bete Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko

abenduaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziako osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea”.

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Gemma Sánchez Lerma izendatzen baita erakundearen idazkari nagusiaren aldi baterako ordezkari

Idazkaritza Nagusia funtsezko organoa da Kontuen Ganberaren funtzionamendua egokia izan dadin. Haren eginkizunak Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean jasota datoz, eta Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 4. artikulua bidez garatzen dira.

Erregelamenduaren 4.6 artikulua ezartzen duenez, "idazkari nagusiaren postua hutsik badago, edota kanpoan edo gaixorik dagoenean, Kontuen Ganberako lehendakariak hautatzen duen legelariak beteko ditu haren eginkizunak aldi baterako".

Horrenbestez, Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak emaniko ahalmenak baliatuz, lehendakari honek

EBATZI DU:

Lehena. Gemma Sánchez Lerma, Kontuen Ganberako legelaria, izendatzea José Contreras López idazkari nagusiaren aldi baterako ordezko, hura ez badago.

Bigarrena. Ebazpen hau idazkari nagusiari, Gemma Sánchez Lermari, Kontuen Ganberako administratzaileari, kontu-hartzaileari eta Nafarroako Langileen Batzordeari helaraztea, jakinaren gainean egon daitezten.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen webgunean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 4an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia

TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentziaren txostena bukatzeke epea luza-

tzeke erabakia, 2024ko irailaren 27koa. Hona testua:

“Ponentziaren lanak bukatzeke epea **2025eko abenduaren 31ra arte** luzatzea”.

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia

SEIGARREN ARAUA ALDATZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentziaren erabakia, 2024ko irailaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita seigarren araua. Hona testua:

"Ponentzian eginen diren agerraldiak irekiak izanen dira hedabideentzat eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituko dira, ponentziak salbuespenez ateak itxita izanen direla erabakitzen duen kasuetan izan ezik. Bilera hauek ponentziako lehenakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzailearen min-

tzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hamabost minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeke, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Partehartzaileraren batek hala eskaturik, lehenakariak galdera edo oharretarako beste txanda bat irekitzen ahalko du. Bost minutu edukiko dituzte horretarako".

Iruñean, 2024ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

